

1978 - IV - 28

Gasteizen, Arabako Foru Diputazioko jauregian, 1978ko Apirilean 28an, eguerdiko hamabi t-erdietan, bildu dira: Diputazioko buru den Ezkerra jauna eta Euskaltzaindiko lehendakaria buru direla, diputatu foralak, J. A. Maturana kultur kontseilaria; J. Haritschelhar, J. M. Barandiaran, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. D. Intza, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, J. San Martín, J. M. Satrustegi, euskaltzain osoak; O. Apraiz, euskaltzain ohorezkoa; A. Barrueta, X. Garmendia, J. M. Iriondo, J. Insausti, J. L. Lizundia, P. Martín, J. M. Torrealday, P. Uribarren, M. Ugalde, M. Ruiz Urrestarazu, J. J. Zearreta, euskaltzain laguntzaile jaunak, eta Euskal-Herriko erresuma guztietako jendez gela nagusia beterik.

Euskaltzainburua mintzatu da, lehenik euskaraz, erdaraz gero. Arabarrei agurrez, Aita Olabide euskaltzain zena, O. de Apraiz ohorezkoa eta zenbait laguntzaile aipatu ditu. Ez deritza zuzena Araba euskaltzain oso gabe egotea eta A. Arrue zenak utzi zigun hutsartearen betetzera dator E. Knörr, beronek egin merituegatik gehienak hala hautatu dutenez. Sarrera hitzaldi hau bukatzeaz, A. Zabala eta J. L. Davant euskaltzainen besotik dator Enrike Knörr batzarkideen gelara, guziak txaloz hartzen dutelarik.

E. Knörr jauna hasi da bere sarrera hitzaldiaz, kunplimenduzko hitz batzuen bidez, izendapenaren ohorea eta zama agertuaz, berak hautatua duen gaiari heldu dio: Federiko Belaustegigoitia, arabar euskaltzain laguntzailea, bere bizitza eta lanak adiaraziz eta goraiapatuz.

J. M. Satrustegi euskaltzainak egin du ihardespenezko hitzaldia. E. Knörr euskaltzale suharrak hain gazterik eginak dituen lanak eta bere doain kementsua adieraziaz.

Hitzaldiok bukatzeaz, José Antonio Maturana, E. K. N.-ko Kultur Kontseilariak egin ditu hitz batzuk, Kultur Kontseilaritza euskarari eta euskal kulturari laguntza emateko gertu dagoela agertuaz.

Bukatzeko, Kaietako Ezkerro, Foru Diputazioko lehendakariak agurtu ditu batzarkideak, Euskaltzaindiari, euskarari eta ikastolei eta berdin gainerako euskal zentroei laguntzaz lotuko zaiela agertuaz.

Gero, Argomanizko ostatuan, anaiarteko bazkaria.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN